

EBAZPENA, UPV/EHUko GERENTEARENA, 2024ko ORDAINSARIETARAKO % 0,5eko IGOERA GEHIGARRIA AGINTZEKO DENA.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Ministroen Kontseiluaren 2023ko abenduaren 27ko Erabakiaren bidez 2024. urterako luzapena aplikatzeko irizpideak ezarri ziren eta, hortaz, aurreko ekitaldiko aurrekontu orokorrak automatikoki luzatutzat jo ziren, beste kontu publiko batzuk onartu arte.

Bigarrena.- Abenduaren 22ko 21/2023 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak (2023ko abenduaren 29ko EHAA), 19. artikuluan xedatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsariak.

Artikulu horrek honela dio: "1. atala- 2024. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko lan kontratudunak ez diren langileen urteko guztizko lansariak ezin izango dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarritzko xedapenetan aurreikusitakoa baino igoera orokor handiagoa izan, homogeneotasunaren arabera kalkulatuta erkaketaren bi aldietarako, ez langileen kopuruari eta antzinatasunari dagokionez, ez lanaldi araubideari dagokionez.

7.- Ordainsari osagarriek, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, ezin izango dute sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarritzko xedapenetan aurreikusitakoa baino igoera orokor handiagoa, hargatik eragotzi gabe programa bakoitzari esleitutako langile kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz egin daitezkeen aldaketak."

8.- Behin 2024ko ekitaldirako administrazio publikoetako funtzionarioen oinarritzko ordainsariak zehaztuta, Gobernu Kontseiluak zehaztuko du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 122.2.a.1 artikuluan erregulatutako destino osagarriaren urteko zenbatekoa, bai eta gainerako ordainsari osagarriena ere, aurreko apartatuetan xedatutako irizpideekin bat etorritik. (...)

13.- Lehendakariaren, sailburuen, goi kargudunen eta berdinduen 2024ko ekitaldirako ordainsariak ezin izango dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarritzko xedapenetan aurreikusitakoa baino igoera orokor handiagoa izan, antzinatasuna dela-eta egokitu dakiekeenari kalterik egin gabe.

14.- Behin-behineko langileen ordainsariak, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, ezin izango dute sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarritzko xedapenetan aurreikusitakoa baino igoera orokorrik izan, antzinatasuna dela-eta egokitzen zaien gehikuntza eragotzi gabe eta betiere haien ordainsariak erreferentziatuta dauden kategoriari dagokion diru kopuru osoa errespetatuta."

Hirugarrena.- UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2024ko otsailaren 22ko ohiko bileran, erabaki zuen UPV/EHUko Gizarte Kontseiluari aurkeztea aurrekontuen aurreproiektua, egoki ikusiz gero onar zezan, betetzeko UPV/EHUren Estatutuetako 174. eta 235.

artikuluetan xedatutakoa, bai eta UPV/EHUko Gizarte Kontseilua arautzen duen Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 70.e) artikuluan xedatutakoa ere.

Gizarte Kontseiluak 2024ko martxoaren 13ko bileran onartu zuen UPV/EHUren 2024. urteko aurrekontua.

Laugarrena.- Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak honako hau dio 6. artikuluan (Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko zenbait neurri luzatu eta arlo fiskal, energetiko eta sozialean premiazko neurriak hartzen dituen dekretua; 2024ko ekainaren 27ko EBO):

“1. En el año 2024, las retribuciones del personal al servicio del sector público podrán experimentar un incremento global máximo del 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2023, incluidos en estas últimas los incrementos derivados de lo previsto en el artículo 19.Dos.2 de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Este incremento retributivo tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2024.

2. Asimismo, con efectos de 1 de enero de 2024, se aplicará, en su caso, un incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento, respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2023, si la suma de la variación del IPCA de los años 2022, 2023 y 2024 superara el incremento retributivo fijo acumulado de 2022, 2023 y 2024. A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPCA del año 2024, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.

3. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2023.

4. En el sector público se podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos siempre que no se supere el incremento global fijado en este apartado.

5. La masa salarial del personal laboral podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en los apartados 1 a 4 de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos periodos objeto de comparación.

6. Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados 1 a 4 de este artículo, los gastos de acción social y la productividad o retribución variable del personal laboral se determinarán en términos de homogeneidad respecto al número de efectivos.

7. Con efectos de 1 de enero de 2024, las cantidades previstas en el artículo 14, Capítulos I y II del Título III, artículos 31, 32.Uno y Disposiciones adicionales vigésima sexta, vigésima séptima y vigésima novena. Dos de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, se incrementarán en los términos establecidos en los apartados 1 a 4 de este artículo.

Por su parte, las cantidades previstas en el artículo 13 y los anexos IV y V de la citada Ley 31/2022, de 23 de diciembre, actualizadas conforme a la disposición adicional tercera del Real Decreto-ley 8/2023, de 27 de diciembre, se incrementarán con efectos de 1 de enero de

2024, en los términos establecidos en los apartados 1 a 4 de este artículo. Dichas cuantías se incrementarán con la parte de la cuota del Mecanismo de Equidad Intergeneracional correspondiente al empleador aplicándose lo previsto en el artículo 127 bis y la disposición transitoria cuadragésima tercera del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre.

8. Este artículo tiene carácter básico salvo el apartado 8 y se dicta al amparo de los artículos 149.1.13.^a y 156.1 de la Constitución Española.”

Bosgarrena.- 2025eko uztailaren 2an argitaratu zen BOEn PJC/681/2025 Agindua, uztailaren 1ekoa, eta horren bidez argitaratu zen, batetik, Ministroen Kontseiluak 2025eko uztailaren 1ean hartutako Akordioa, sektore publikoko langileen ordainsarietan % 5eko igoera onartzekoa, hain zuzen ere, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak 6.2 artikuluan zehaztutakoa (Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko zenbait neurri luzatu eta arlo fiskal, energetiko eta sozialean premiazko neurriak hartzen dituen dekretua; 2024ko ekainaren 27ko EBO); bestetik, 2025eko uztailaren 3an, Estatuko Idazkaritzaren uztailaren 2ko Erabakia, Aurrekontu eta Gastuei buruzkoa, eta horren bidez xedatu ziren jarraibideak Estatuko sektore publikoko langileei % 5eko igoera gehigarria ordaintzeko, IPIHaren bilakaera kontuan hartuta (ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak 6.2 artikuluan zehaztutakoa).

Beraz, igoera gehigarri hori aplikatuko zaie 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, eta, beraz, biak batuta, ordainsarien igoera ehuneko 2,5ekoa izango da 2024ko ekitaldian.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Gerenteak eskumena du erabaki hau emateko, UPV/EHUren Estatutuen babesean eta UPV/EHUko errektorearen 2025eko urtarrilaren 27ko Erabakia dela bide (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko erabakia).

Bigarrena.- Abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrenak, 5. artikuluko lehenengo atalean zehaztuta daude soldatak eta hiru urtekoak (12 ordainsari oinarri hartuta), eta hori ezarriko zaie urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuko 76. artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaien funtzionarioei, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio eremuan sartuta badaude Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean edo hura garatzeko emandako Funtzio Publikoari buruzko legeetan xedatutako moduan. 2. atalean jasota dago eskuratuko duten zenbatekoa ekaineko eta abenduak aparte ordainsarietan, soldata kontzeptupean zein hiru urteko kontzeptupean.

Hirugarrena.- Irakasle funtzionarioen arloan, abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrenak, 23.BAT.C) artikuluan lanpostu mailako osagarria zehazten du, lanpostuaren araberakoa.

Laugarrena. TEKAZEL funtzionarioen arloan, abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, Euskal Enplegu Publikoarenak, 122.2.a)1 atalean zehaztu du ordainsari osagarria, lanpostuaren araberakoa.

Bosgarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 2ko 21/2023 Legea, 19. artikulua.

Seigarrena.- Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuko 6.2 artikulua (Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko zenbait neurri luzatu eta arlo fiskal, energetiko eta sozialean premiazko neurriak hartzen dituen dekretua; 2024ko ekainaren 27ko EBO).

EBATZI DUT

Lehenengoa.- UPV/EHUko funtzionario eta lan kontratadun langile guztien ordainsariak % 0,5 igotzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, eta ebazpen honetan zehaztutakoari jarraikiz. Atzerapenak 2025eko urriko nominan ordainduko dira.

Bigarrena.- Argitaratzea ebazpen hau UPV/EHUren webguneko Gardentasun Atarian.

UPV/EHUko GERENTEA

ERREKURTSOAK

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta kontra egiteko administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena: 8. artikulua).